



ERMUKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE ERMUA

8. Ordenantza Fiskala Administrazio-agiriak emateagatiko tasa

I. XEDAPEN OROKORRA

1. ARTIKULUA

Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Ogasunak araupetu dituen abenduaren 16ko 2005/9 Foru Arauko 21. artikuluan xedatu denarekin bat etorritik, Agiriak Emateagatiko Tasa ezarri da. Tasa horretan zerga ordenantza hau izango da aginduzko, eta honen arauak aurrean aipatutako abenduaren 16ko 2005/9 Foru Arauan ezarritakoaren araberrakoa izango dira.

II. ZERGA EGITATEA

2. ARTIKULUA

1. Zerga egitatea Udalak norbaitek eskaturik agiriren bat tramitatzeko edo Udal Administrazioak edo udal agintariek eskumeneko dituzten espedienteak tramitatzeko egiten duen administrazio jardura da.

2. Ondore horietarako, administrazio agiri bat tramitatzen denean, tramitazioa eragin duenak edo haren onura jasotzen duenak eskaturik tramitatutzat joko da, are berariaz eskatu ez badu ere.

3. Ez dago tasa honen kargapean zergen arloko betebeharrak betetzeko beharrezkoak diren agiri eta espedienteak tramitatzeko, ez eta zergei buruzko galderak, behar ez zirela egindako sarrerak itzultzeko espedienteak, era guztietako udal erabakien aurkako administrazio-errekurtsoak, eta beste udal tasa edo prezio publiko batek kargatzen dituen Udalaren eskumeneko zerbitzuei edo jarduerari dagozkienak eta udal jabariko ondasunen erabilera edo probetxamendu bereziei dagozkienak ere.

III. SUBJEKTU PASIBOA

3. ARTIKULUA

Subjektu pasibo zergadunak dira agiri edo espedienterik bat tramitatzeko eskatzen duten pertsona fisiko edo juridikoak, halako baten tramitazioa eragiten dutenak, edo tramitatzen den agiri edo espedientearen onura jasotzen dutenak.

IV. SALBUESPENAK

4. ARTIKULUA

1. Jarraian adieraziko diren inguruabarretan dauden zergadunek ez dute tasa ordaindu behar:

a) Lege-manuz pobre adierazi direnak.

b) Bazterkeriaren aurkako Legean ezarritako errenta publikoak jasotzen dituztenak.

c)Pobreziako epai onura lortu dutenak, pobretzat jotzeko epai prozeduran eragina izan behar duten espedienteek dagokienez.

2. Udal Administrazioak epaitegi edo auzitegiek emandako ofizioak direla bide edo beste herri administrazioen batek eskaturik bere eskumeneko gaiei buruz ziurtagiriak edo agiriak ematen dituenean ez da sortuko tasarik.

V. ZERGA KUOTA

5. ARTIKULUA

1. Zerga kuota tramitatzen den agiri edo espedientearen izaeraren arabera kopuru finkoa izango da. Tarifak hurrengo artikuluan ezarri dira.

2. Tarifaren kuota agiri edo espediente bakoitzaren tramitazio osoari dagokio, hasieratik azken erabakia hartu arteko tramitazioari, interesatuari erabakiaren ziurtagiria eta jakinarazpena bidaltzea barne dela.

VI. TARIFA

6. ARTIKULUA

Aurreko artikuluan aipatutako tarifa hurrengo epigrafeetan antolatu da:

KONTZEPTUA	EUROAK
1. Ziurtagiriak eta konpultsak	
1. Udal-agiri edo -erabakien ziurtagiriak	14,45
2. Udal-mugarteko hiri-finken nomenklatura- eta zenbakitze-ziurtagiriak	14,45
3. Udal-zerbitzuekin lotutako ziurtagiriak	14,45
4. Trafiko-seinaleei edo -kokapenei buruzko ziurtagiriak:	
a) Seinale horizontalak eta bertikalak edo semaforo-seinaleak (planoarekin)	14,45
b) Bidegurutzearen egoera eta ezaugarri automatikoak, distantziarekin edo norabideekin eta zirkulazio-biraketekin (planoarekin).	14,45
c) Autobus eta taxi-geltokiak, eta ibilgailuen aparkalekuak oro har, edo ibilbideak eta ibilbidea (planoarekin)	14,45
d) Beste txosten batzuk (planorik gabe)	14,45



ERMUKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE ERMUA

8. Ordenantza Fiskala Administrazio-agiriak emateagatiko tasa

KONTZEPTUA	EUROAK
e) Beste txosten batzuk (planoarekin)	28,50
5. Gainerako ziurtagiriak	14,45
6. Konpultsatutako folio bakoitzeko	12,90
7. Udal-bulegoetan ondorioak izan behar dituzten ahalordeak askiesteagatik.	28,50
8. Zerga-zorrak egunean izatearen ziurtagiriak	3,15
2. Udal-bulegoek emandako agiriak	
1. Lekukoen txostenak	14,45
2. Jaraunsleek hartzekoak jasotzeko egindako adierazpenak	14,45
3. Edozein helburutarako Alkatetzaren aurrean agertze bakoitzeko, alderdi interesdunak idatziz jasotzeko eskatuta.	0,00
4. Fotokopian ateratako agiri bakoitzeko, folioko	0,10
3. Hirigintza-zerbitzuei buruzko agiriak	
1. Eraikinen aurri-deklarazioaren espediente bakoitza alderdi batek eskatuta izapidetzeagatik	166,40
Alderdiren batek eskatuta aurri-espedientea egitea	1.109,30
2. Alderdi batek eskaturik eskatutako hirigintza-zerbitzuen ziurtagiri bakoitzeko	99,40
3. Lurren ezaugarriei buruz edo eraikitzeko kontsultari buruz egiten den txosten bakoitzeko, alderdiak eskatuta, eta hirigintzako zedulei buruz	102,10
4. Kartografia-planoen edo hiriko udal-antolamenduari dagozkion planoen erreprodukzioa	
PAPEREAN KOPIA:	

KONTZEPTUA	EUROAK
DIN A4	2,25
DIN A3	4,55
DIN A2	8,75
DIN A1	16,65
DIN A0	33,25
5. Aurreko epigrafeetan sartzen ez diren plano digitalak plotter-ordu edo - frakzio bakoitzeko tarifatuko dira.	166,45
6. Udal Sare Topografikoaren koordinatuak eta erpinen aipamenak. Erpineko	22,05
7. Suteen ondoriozko kalteak eta eraikinen gaineko beste peritazio batzuk baloratzeko udal-arkitektoak egindako ziurtagiri bakoitzeko:	110,95
. 3.005 euro arteko kalteak edo balioa	
. 3.005,01 eurotik 6.010 eurora	166,45
. 6.010,01 eurotik 30.050 eurora	225,90
. 30.050,01 eurotik gora	554,70
8. Egiturazko elementuak, igeltserotza, kanpoko arotzeria, instalazio edo estaldura bereziak aldatzea ez dakarten obra txikietarako lizentzia emateagatik	55,60
4. Obrak, hornidurak eta zerbitzuak kontratatzea	
1. Obra-, hornidura- edo zerbitzu-ziurtagiriak, ziurtatutako zenbatekoaren %0,2 bakoitza.	
2. Obra-harreraren akta, bakoitza	42,70
5. Beste espediente edo agiri batzuk	
Azterketa-eskubideak. Deialdi bidez	15,70
Berariaz tarifatutako ez den beste edozein espediente edo dokumenturengatik.	14,45
6.- Udaltzaingoak emandako dokumentuak.	



ERMUKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE ERMUA

8. Ordenantza Fiskala Administrazio-agiriak emateagatiko tasa

KONTZEPTUA	EUROAK
- Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak eduki, trebatu eta maneiatzeko beharrezkoa den udal-lizentzia lortzeko edo berritzeko espediente bakoitza izapidetzeagatik.	14,45
- Karabina edo tiro erdiautomatikoko pistola edo tiro bakar bat eta ekintza bikoitzeko edo sinpleko errebolberrak (airez edo beste gas konprimatu batez eraginda) edukitzeko eta erabiltzeko udal-baimenaren titularra lortzeko, berritzeko edo aldatzeko espediente bakoitza izapidetzeagatik.	14,45
- Aurreko epigrafeetan jaso gabeko beste edozein espediente edo agiri.	14,45

VII. KUDEAKETA ETA BILKETA

7. ARTIKULUA

1. Zergapeko agiri eta espedienteak tramitzatzeko eskabidea Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztutakoan sortuko dira tasa eta bera ordaindu beharra.

2. Arazoren baten aurrekariak bilatzeko eskatzen denean, ezer aurkitzen ez bada ere tasa ordaindu egin beharko da.

8. ARTIKULUA

1. Tasa autolikidazio araubidean eskatuko da.

2. Idazkiak Erregistro Orokorrean eraman ez eta, ondorioz, tasa ordaindu izana justifikatu ezean, behin-behinekotasunez onartuko dira, baina ezin bideratu izango dira harik eta akatsa zuzendu arte. Horretarako, interesatuari hamar eguneko epea emango zaio kuotak ordaintzeko eta ohartarazi egingo zaio ezen, epe horretan ordaintzen ez badu, idazkia aurkeztu gabekotzat joko dela eta eskabidea artxibatu egingo dela.

9. ARTIKULUA

Zerbitzua tramitatzearen ardura duten udal langileek eman edo erregistratutako agiri guztien kontuak eramango dituzte, eta dagozkien likidazioak egindakoa berauen sarrera egingo dute Udal Gordailuzaintzan.

VIII.URRATZEAK ETA ZEHAPENAK

10. ARTIKULUA

Zergaren ikerketari, zerga-urratzeen kalifikazioari eta urratzeen zioz ezarri beharreko zehapenei dagokien guztian, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko artikuluetan xedatutakoa beteko da.

IX. AZKEN XEDAPENA

Administrazio Agiriak Emateagatiko Tasa arautzen duen honako ordenantza berau argitaratu eta biharamunetik aurrera jarriko da indarrean, behin betiko onetsi eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 2025eko abenduaren 31ko 249 zk.an argitaratu eta gero, eta hala egongo da harik eta aldaraztea edo indargabetzea erabaki arte.